

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko abuztuak 28 • 127. zka.



Zelako Andramaixak!



Portasoleko jaiak



Hamabostean behin



Angel Alkain

... bi aukera hauen bidez



HEWLETT PACKARD 525 MMX PENTIUM 166 ordenadorea

zure poltsikoaren neurrira.



AMERICAN RESEARCH CORPORATION PENTIUM 166 ordenadorea

Multimediaren mundura zabal-zabal irekita dagoen leihoa

- Multimediaren abantaila guztiak eta lan, hezkuntza nahiz aisialdi alorrean komunikazioek dituztenak ahalik gehiena garatzea.
- Faxak bidali eta jasotzea.
- Dei telefonikoak egin eta erantzungailuan mezuak jasotzea.
- Multimedia informazioa erabiltzea: testuak, grafikoak, irudiak, musika, bideoa, jokoak,...
- Zuen seme-alaben ikasketak maila guztietan hobetzea.
- Internet sarearen bitartez zure intereseko gaien buruzko datu-base eta artiboak eskuratzea.

Eta halaber, erabilera handia duten eta etxe guztietan geroz eta ohikoagoak bihurtzen ari diren makina bat egin-kizun.

Ezinbesteko tresna zu eta zure familia atzera gera ez zaitzeten eta denon eskura dagoen teknologiarik aurreratuenaren bidez Multimediaren eta Komunikazioaren munduan sar zaitzeten. Erraz erabil daitekeelako eta baldintza ekonomiko paregabeak dauzkalako.

Eta bestela, begiraiezu Euskadiko Kutzaren finantzaketaren bidez egiten zaizkizun bi eskaintza haundi hauen zenbakiei. Zure eskura... eta, jakina, zure poltsikoaren neurrira jarri dizugun aukera ezin hobea delako.

HEWLETT PACKARD 525 MMX PENTIUM 166 ordenadorea

- ~~ESKAINNTZA HONEK MERKATUAN DUEN BALIOA 481.000 pta.~~
- ~~Horren finantzaketak izango lukeen kostua Euskadiko Kutzak eskaintzen dizkizun baldintzetan 548.827 pta.~~

KOSTUA ZURETZAT

- Hasierako sarrera 15.000 pta.
- Irekiera komisioa (%1,5) 5.175 pta.
- 345.000 pta.ko kreditua, hilean 9.695 pta. * bakarrik ordaindu beharreko 40 ordainketetan finantzaturik 387.000 pta.
- GUZTIRA 407.975 pta.

GUZTIRA AURREZTEN DUZUNA (%25) 140.852 pta.

* Interes tasa nominala %7. U.T.B.: %8,22

AMERICAN RESEARCH CORPORATION PENTIUM 166 ORDENADOREA

- ~~ESKAINNTZA HONEK MERKATUAN DUEN BALIOA 305.000 pta.~~
- ~~Horren finantzaketak izango lukeen kostua Euskadiko Kutzak eskaintzen dizkizun baldintzetan 348.469 pta.~~

KOSTUA ZURETZAT

- Hasierako sarrera 15.000 pta.
- Irekiera komisioa (%1,5) 3.855 pta.
- 345.000 pta.ko kreditua, hilean 7.222 pta. * bakarrik ordaindu beharreko 40 ordainketetan finantzaturik 288.880 pta.
- GUZTIRA 307.735 pta.

GUZTIRA AURREZTEN DUZUNA (%11) 40.734 pta.

* Interes tasa nominala %7. U.T.B.: %8,22



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ARETXABAETA (Gipuzkoa)
 Aretxabaeta abuztuak 28
 Kaixo,
 Oro pozik gaude postal pilo bat jaso ditugukatu,
 Gensica uhartetatik, Torredembarra, Gmillas, Arrasate,
 Peniscola, Kenia, Zuriza, Irlanda, Santiago de Compostela,
 Eskoziatik...
 Oraindik oporrak ez dira bukatu eta postal gehiago
 jasoko ditugukatu, hurrengo alerako egingo dugu
 zozketa. Opari berezia zein den ez gaur esatera,
 baina sorpresa handia izango da.
 Beraz, oraindik ere gaur ezduzete idazteko.
 Aretxagazeta
 LASTER ARTE

Leku askotatik heldu zaizkigu postalak. Baina oraindik oporrak denontzat bukatu ez direnez, hurrengo alerako egingo dugu zozketa eta opari bereziaren irabazlea nor izan den jakitera emango dugu. Beste barik, eskerrik asko lehiaketan parte hartu duzuen guztioi.



Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaeta

Lie

Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaeta

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Santa Kurtz, 20, Kultur etxea, Aretxabaeta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila.
Zuzendaria: Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609 Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Portasoleko jaiak

Ahaztuta ditugu Portasoleko jaiak. Uztaila bukaeran izan ziren eta urruti samar gelditzen dira, hala ere, argazki hauekin gogoratuko ditugu.

Ekintza ugari antolatu zituen PAGLE elkarteak, horien artean kontzertuak, jokuak, mus txapelketa, sokamuturra, tekno txosna...



Erraldoi eta buruhaundiek formal formal eman zioten hasiera jaiari.



Urtero moduan animazio handia egon zen sokamuturrean. Zapatu goizean eta arratsaldean lagun ugari bildu zen Aralar, Gorbea, Bizkaia eta Nafarroa kaleetan.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5.30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714845

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA



Iñurrategi anaiei ongietorria

Uztaila bukaerari erreposoa egiterakoan Iñurrategi anaiei egindako ongietorria kontutan izan behar da. Pakistaneko Broad Peak (8.047 m.) mendia lortu ondoren, nekatuta baina irrifarra espainetan zutela, iritsi ziren etxera. Ez da gutxiagorako, zortzimilako zortzigarren mendia lortu eta gero. Dagoeneko izan dituzte deskantsatzeko egun batzuk eta proiektu berriak ere ez dituzte urrun ibiliko.

Kurtzebarri eguna iraileko bigarren domekan

Irailaren 14an, hau da, iraileko bigarren domekan ospatuko da Kurtzebarri eguna.

Urtero moduan meza izango da goian eta Murrukixo mendi elkarteak salda beroa eta txanpaina gertu izango ditu bertara hurbiltzen direnen artean banatzeko. Trikitilariak ere bertan izango dira giroa alaitzeko. Eguraldiak laguntzen badu jende asko animatuko da goiza Kurtzeberrin pasatzera.



Irailaren 14an ospatuko da Kurtzebarri eguna

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 79 71 69

GUREA

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64


**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

UDA, Estatuko afizionatu mailako txapeldun izan zeneko 25. urteurrena gogoratzeko partidua

1972. urtean UDA Estatuko afizionatu mailako txapeldun izan zen eta 25. urteurrena ospatzeko eta gogoratzeko Eibar eta Alavesaren arteko partidua ikusteko aukera izan genuen pasatu den zapatuan Ibarra futbol zelaian.

Partidua arratsaldeko 5,30etan hasi zen. Izugarritzko beroa egiten zuen eta Ibarra futbol zelaira hurbildu ziren 200 lagun inguru tribunan eta kerizpentan jarri ziren. Jokalarientzako ere ez zen batere giro egokia.

Eibar 22. minutuan Raul Loroño jokalaririk

sartutako golari esker aurreratu egin zen markagailuan. Bigarren zatian, joko biziagoa izan zen eta eibartarrek beste hainbat aukera ere izan zituzten. Epaileak bi gol indargabetu zituen jokoz kanpo egoteagatik. Horietatik bat Igor Arenazak sartu zuen eta bestea Martzelo Alaveseko jokalaririk. Arenaza eta Armando partiduko jokalaririk onenak izendatu zituzten.

Azkenean partidua Eibarren alde 0 eta leku emaitzaz amaitu zen. Partidua etxetik ikusteko aukera ere izan zen, ETBk zuzenean emititu baitzuen.

Izugarritzko beroa egin zuen Eibar eta Alavesaren arteko partiduan



200 lagun inguru batu zen Ibarra futbol zelaian Eibar eta Alavesaren arteko partidua ikusteko

Agorreko Andramaixak Arientzan



Andramaixak pasatu diren arren, Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte arientzarrek irailaren 5etik 7ra bitartean.

Egun horietarako egitarau zabala antolatu dute. Besteak beste, eguakotxean, tantaia jaso eta Martin Kabarrixa zintzilikatuko da. Jarraian auzo afaria izango da eta bertan dantzaldiak lagunduta Arientzako 3. kartel lehiaketako sari banaketa egingo da.

Zapatuan, meza nagusia izango da eguerdiko 12etan. Arratsaldean ondo pasatzeko asmoz Arientzako jolasetan parte hartzeko aukera egongo da. Gauerako IX. txerri harrapaketa antolatuta dago.

Domekan, 12,30etan izango da meza nagusia. Jarraian ginkana txapelketari ekingo diote.

Arratsaldean hainbat jokuren artean XI. arosartze txapelketan parte hartzeko aukera izango dute animatzen diren guztiek. Jaiei amaiera emateko txokolatada eta dantzaldia egongo da Iñigorekin.

Martin kabarrixa ezaguna da Agorreko Andramaixetan. Jai guztia tantaitik izegita pasatzen du eta honako bertsoak bota ohi dizkiote elkarri auzotarrek eta Martinek.

Auzoak Martini
Arientzak badauko zure entzutie baina jaixetan dozu gure konbittie entzuizu kabarrixa basoko dukie gure badozu gure zorrotik jatie Andramaixetan izan gure alkatie.

Martin Kabarrixak auzoari
Hiru egun tantaixen pasau eta gero txokolatie besteik ez ete dau, gero? Sasoi baten hemendik hamaika jenero eruendakue naz nahiz edur nahiz bero holan ni ezingo naz etorri urtero.

Hemengo tanborrada bonba ta diana zaratarako behintzet badago afana tantai puntatik majo ikusi dot dana hurrengo be badago holako programa abixuaz basora etorri nigana.

Andramaixak



Datorren urterarte Andramaixak

Batzuk triste eta beste batzuk pozik egongo dira Andramaixak bukatu direlako. Eguraldi goibela egin du jaietan, hala ere, jendeak animatu ditu bazterrak, egia esan, gauzez egunez baino gehiago.

Aurten jai batzordeak antolatutako programa izan dugu eskuartean. Jaien ostean balorazioa egiteko ordua iritsi da eta datorren urterako hobetuz joateko baliagarria izango delakoan argazkiez gozatzen uzten zaituztegu.



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34



Arratsalde guztia musean

Andramaixak Mus Txapelketa barik ezin!. 52 parejak izena eman zuten baina irabazle ateratzeko bikote batek bakarrik du aukera eta zortedunak Jose Luis Errasti eta Lucio Elorza barajuendarrak izan ziren. Bigarren Migel Angel Unamuno eta Xabier Urzelai bikotea geratu zen. Hirugarren Igor Oskotz eta Javier Eraña eta laugarren Eduardo Alonso eta Juan Mari Makazaga.


Enbido , hordago...

Mus txapelketa bai baina badaezpada ere, tragoa aldamenean eztarriari laguntzeko.



Erraldoi eta buruhaundiak trikitilariekin batera

Erraldoi eta buruhaundiek arratsaldean irten zuten kalera. Batzuk buruhaundien aurrean takarraran egin behar izan zuten eta larri larri ibili ziren; beste batzuk ez zuten hobeto pasatu erraldoiak zutik mantentzen.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGJA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57

Ikurrinari agurra 14an egin zitzaion. Alkate eta zinegotziak udaletxe aurrean bildu eta omenaldia egin zioten ikurrinari. Agurra egin eta gero jaiak hasten zirela adierazteko txupinazoa boto zuen alkateak. Dantzariak, alkatearen pregoia, txupinazoa eta txalaparta izan genituen udaletxe aurrean.



Bolo txapelketa gauean

Gauean jendea Zabale anaiekin Durana kalean zegoen bitartean, bolo txapelketa izan genuen. Bolalekuan musean moduan animazio handia egon zen. Bolo txapelketako irabazlea, Aitor Aranzabal, bere lehengusina den Mari Karmen Uribe Aranzabal mexikarrarekin harrapatu genuen. Mari karmen egun batzuk pasatzera etorri zen Euskal Herrira eta bezperan hemen egon zen. Ilusio handia egin zion argazkia ateratzeak.



Ondalan konpartsak giro bikaina

Kalean gora eta behera herrian zegoen jende guztia mugitu zuen Ondalan konpartsak. Lau erraldoiek gaiteroen laguntzarekin ikuskizun dotorea eskaini zuten, baina inguruan ibili ziren buruhaundi eta zaldiek susto bat baino gehiago eman zuten. Aurrean harrapatzen zutenari beldur barik ematen zioten.



BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABAleta

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

Meza nagusia Andra Mari egunean



Andra Mari egunean eliza jendez gainezka egon zen. Udal korporazioko kide batzuk Andra Mari eguneko meza entzuten egon ziren eta bukaeran alkate doinuaz abiatu ziren udaletxera. Meza Antonio Astigarraga parrokoak zuzendu zuen eta Jon Molina ere laguntzaile lanetan ikusi genuen. Meza luze samarra izan zen, ordu eta laurden iraun zuen.

Aretxabaletako abesbatzak dotore abestu zuen eta bertan bildutakoek koruaren lana goraiatu zuten.

Meza bukatutakoan, Andra Mari eguna zela eta, jendea oso dotore zebilen kalean.



Umeak pozik gurasoak, berriz, umeak plazara eraman eta lasaitasun edarra!

Gaztetxoek egunero izan zuten ondo pasatzeko aukera plazan jarri zen parkean, gaztelu puzgarri, tren...



Zumaiako bandaren bisita

Meza nagusiaren aurretik Zumaiako bandak alaitu zituen herriko kaleak pasakaile ederrekin.

Meza ostean jendeak interes handiarekin jarraitu zuen Zumaiako bandaren kontzertua. Bost pieza jo zituen jendearen txaloartean.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz. 16
Tfnoa: 79 23 43


Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

*Etxabe
harategia*

Durana 4
☎ 79 16 61



Pelota partiduak jendez gainezka

Bi egunetan izan genituen pelota partiduak eta jende ugari elkartu zen Iturrigorri frontoian.

Guztira lau partidu jokatu zituzten baina txapelketarik ez zen egon. Horregatik orain artean zortzi pelotarik elkarren aurka indarrak neurtzen zituzten bitartean, aurten, bikoiztu egin da kopurua eta 16

pelotari izan ditugu pelota partiduetan.

Andra Mari eguneko lehenengo partiduan Errasti-Iñurrategi bikoteak ezin izan zuen Muruamendiaraz-Pinedo garaitu. Emaizta 16-22koa izan zen. 2. partidua Artola-Balardi 17 Larramendi-Errasti 22 izan zen. Partiduetako jokoa bikaina izan zen eta tantoak ere onak lau bikoteen aldetik.

Bigarren egunean ere partidu interesgarriak jokatu ziren. Jokalarien artean Enrike Galartza Ladis Galartza pelotari ezagunaren anaia zegoen.

Galarza-Idiakez bikoteak Errasti anaien aurka lehiatu zituen indarrak, eta garaipena etxean geratu zen azken hauek 22-13 nagusitu baitziren. Bestalde bigarren partiduan Haritz-De Luz bikotea Esain-Goñiri nagusitu zitzaion 22-13ko emaitzaz. Azken eguneko partiduek emaitza beraz amaitu ziren.

Bi egunetako partiduetan bi urdaiazpiko zozketatu ziren eta biak Eskoriatza aldera joan ziren. Eskoriatzarrek bai zortea.

Habanerak: arrantzaleen kantak

Gaueko ikuskizunen artean "Els Pescador de Garbi" habanera taldea izan genuen.

Kataluniatik hurbildutako talde honek arrantzaleen inguruko hainbat kantu abestu zituen, horietako asko ezagunak gainera. Abeslari gehienak arrantzaleak izandakoak ziren baina argazkian ikusten den moduan gaur egun jubilatuta zeudenak. Ondoren suzko erruera ikusgarriak ikusteko aukera izan zen.



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Goizean goiz txirrindulari lasterketa

Goizeko 9,30etan hasi zen Leintz Bailarako 59. itzulia. 169 txirrindularik hartu zuen parte guztira eta horietatik 102 klasifikatu ziren 119 kmtako ibilbidea egin ondoren.

Lasterketa hasieratik oso bizia eta lehiatsua izan zen eta ihesaldi ugari izan zen tartean. Hala ere, lasterketa sprintean erabaki zen.



Angel Castresana Kaiku taldeko bizkaitarra izan zen lehena helmugaratzen. Bigarren Oskar Askasibar (Born Jay) eta hirugarren Joseba Beloki (Sky Blue ACR). Joxemi Elizburu ere azken kilometrotan ihesalditxo bat egiten saiatu zen baina tropelak azken metrotan harrapatu zuen.



Bermouth-a Ludi Berri taldeaz

Txirrindulari lasterketaren ostean Ludi Berri taldearen musika entzuteko aukera izan genuen Durana kalean. Musika patxangeroa jo zuten eta bat baino gehiago dantzatzera ere animatu zen.



Bolo txapelketa eta marrazki lehiaketa gaztetxoentzat

Gaztetxoentzat marrazki lehiaketa eta bolo txapelketa izan zituzten bigarren egunean.

Marrazki lehiaketan, lan gogorra egin zuten umeek. Azkenean denek jaso zuten erregalu bana eta ume guztiak pozik geratu ziren.



BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE
Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



Preso eta errefuxiatuen omenez bazkaria

Preso eta errefuxiatuak jaietan gogoan izateko bazkaria antolatu zen. 120 bat lagun animatu ziren bazkaltzera. Entsalada, oilaskoa eta gazta jan ondoren trikitilariak eta bertsolariak entzuteko aukera izan zuten bertan bildutakoek.

Bertsolariak, Ainhoa Agirrezaldegi, Saioa Arando eta Amaia Agirre izan ziren.

Tantaneroak

Tan, tan, tan... zer izango ete da hori?

Txatunga & Benbé taldea. Kultura desberdinetako perkusio instrumentuak erabiliz herritarren ikusmina sortu eta giro zoragarria sortu zuten. Hainbat musika mota jo zituzten: kumbia kolonbiarra, Brasileko batukada, abesti afrikarrak eta beraiek asmatutako makina bat erritmo.



Rock kontzertuak

Jaietako azken bi egunak bete zituzten rock kontzertuek. Lehena zapatuan izan zen eta Latzen eta Ehiztari Beltza taldeek jo zuten. Inguruko herrietako jende ugari etorri zen eta gazte jendea txosnetan batu zen. Azken eguneko kontzertuek, Ktulu eta Inbigu, taldeenak, ez zuten horrenbesteko arrakasta izan eta taldekoak normala den moduan jende gutxi zegoela kexatu ziren.





URBALTZ

TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
 Tfno-Faxa: 79 02 51

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
 Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

Saltsa tronik Hura bai saltsa!

Eguerdian ume guztiak plazara inguratu ziren Saltsa tronik ikuskizunera. Egunkaria eta Hanka gorri taldearen eskutik sortutako emanaldi honek animazio haundia jarri zuen umeen artean, fruta ekarri beharra zegoela, tarta pasatu... Haiek ziren komeriak, baina ikusi zelako ondo pasatu zuten.



sokamuturra hasteko eta argazkikoek oraindik ere lasai eserita jarraitu zuten

Kalean gora eta behera zezenarekin

Bigarren eta hirugarren egunean zezenak izan ziren protagonista. Arnoko zezenak izan genituen Durana kalean gora eta behera. Txikiak baina biziak eta kolore guztietakoak, pintxoak, marroiak, beltzak... Aurten beste urte batzutan baino gutxiago izan ziren zezenaren adarretan erori zirenak. Jendea argi ibili zen itxura denez, hala ere, banaka batzuk harrapatu zituen.



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Herri bazkarian giro ona eta arkupeak beteta

Ohiturari jarraituz, hirugarren egunean herri bazkaria egin zen. Aurten gainera paela erraldoia izan zuten guztiek bazkaltzeko. Bazkaria dohain izan zenez, sekula baina lagun gehiago bildu zen plazan. Paella 500 lagunendakoa zen eta ia guztia bukatu zen. Batzuk aulkia etxetik ekarri behar zela pentsatu zuten, baina norberak ekarri beharrekoa edaria eta ogia zen, besterik ez.

Azkenean dena primeran joan zen eta bazkalostean kantatzeko aukera ere izan zen.



Paella erraldoia

Paela valentziakoa zela uste genuen, baina kasu honetan Granadatik etorri zitzaizkigun paela egitera. Andaluzak izan genituen sukaldariak. Hala ere, sukaldari lanetan trebeak zirela erakutsi zuten.

Noiztik zabilzate paelak gertatzen?

Hamahiru urte daramatzagu paelak egiten.

Eta zer egiten dute Andaluzek valentziar paela gertatzen?

Beno, hasi ginenetik ondo doakigu lana eta esperientzia hartu dugu.

Zein osagai ditu?

Oilaskoa, konejoa, txerrikoa, lekak, idarrak, kalamarrak, langostinoak, zigalak, tomatea, kipula, arroza, berakatza eta kondimentuak.

Paela mixtoa da hortaz?

Bai, jakina, baina denetarik egiten dugu, "marinera" ere bai.

Zer da zailena paela egiterakoan?

Arrozean, urean eta gatzean inoiz ez hutsegitea. Hori da garrantzitsuena.

Zenbat arroz kilo bota diozue?

50 kilo.

Lehenengo aldia da Euskal Herrira etorri zaretena?

Bai, lehenengo aldia da. Bestela Espainia guztian zehar ibiltzen gara, Galizian, Madrilan, Extremaduran...




Topatu ete zuen Amaiak nahi zuena? Baietz ematen du.



Mitartegarai
Zatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Andramaixen ostean zer?



Zortea duzuen batzuk, akaso, oporretan egongo zarete baina gehienok Andramaixen ostean berriro errutinaren deia entzuten hasi gara eta "loteria", "bono loto" eta bestelakoak erosten ditugu, aberastu eta gure bizitza opor luze batzutan bihurtzeko esperantzaz. Nire kasuan behintzat alperrik eta hemen nago berriro zalapartan.

Konturatuko zineten **Nerea Euskerajato-**

rregik agur esan digula baina saiatuko gara bere kontseiluak ez ahazten. Dana dala, bera joan da baina niri ez didate horregatik lekua gehitu irakurleak aspertu egiten ditudala eta.

Andramaixak joan dira eta bertako bitxikeri batzuk aipatu barik ezin utzi. Itxura baten kanpotarrak eraman dizkigute sari gehienak: mus txapelketa: Aramaiora; pelota partiduetan zozketatutako urdaiazpikoak: Eskoriatzara eta hori gutxi izango balitz Ondalan konpartsako buruhaundiak ere ederki jipoitu gintuzten. Ezin esan oso fin ibili garenik.

Gustorago egon ziren **paella** jaten egon zirenak behin aulkia, tenedora... hartuta gero. Makina bat buruhauste izan zen, zer eraman eta zer ez argitu artean. Hala ere, denek arroza ederra zegoela esan zuten.

Oraindik gustorago geratu ziren hirugarren egunean goizaldera Durana kalean **biluzik** lasterketak egiten ibili zirenak. Izenak ezin dizkizuet esan espektakuloa ikusteko aukerarik ez nuen izan eta. Beti onena galdu behar.

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Leintz Udal Euskaltegira!



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA maila guztiak

Ikastaro bereziak

Merkatari, langile eta gurasoei egokitutakoak

Erritmo ezberdinak

Ordu-tegi zabala
Bekatze sistema
16 urtetik gorakoentzat

Bulego ordutegia

Goizez: 09.00-12.30 / Arratsaldez: 15.00-19.00

Matrikulaldia

Irailaren 1etik 22ra arte

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA


Durana, 11
ARETXABALETA
Tel.: 79 21 68

Fernando Enparantza
ESKORIATZA



UDAL
EUSKALTEGIAK

ANJEL ALKAIN



Andramaixetan Saltza Tronik, Euskadunon Egunkaria eta Hanka Gorri taldeak antolatutako ikuskizunarekin gure artean izan genuen Anjel Alkain. Azkenaldian telebistan sarri ikusi dugu andoaindar honen aurpegia, "Jaiak 97" programan, "Kili Kolo"n... Oraingo honetan mikrofonoaren bestaldean jarri genuen erdi ñoñostiartua dagoen andoaindar hau.

• Iaz Piraten saioa eskaini zenuten, eta aurten Saltza Tronik...

Iazkoa lehen saioa izan zen. Oso ondo atera zenez aurten beste bat egitera animatu gara. Jolasak eta antzerkiak tartekatzen ditugu. Aurten musikari eman diogu garrantzia.

"San Ferminak dira gehien gustatzen zaizkidan jaiak"

• Zenbat ekitaldi egingo dituzue uda honetan?

Berrogehi bat, jai gehienetan izango gara.

• Zenbat partaide ditu taldeak?

Zazpi gara, hiru musikari, bi aktore eta aisialdiko monitoreak.

• Umeak dibertitzeko zer egiten duzue?

Ahalik eta gauza sinpleena, umore pixkat jarri eta animatu. Umeak ere animatuago egoten dira jaietan.

• Nola hasi zinen antzerki munduan?

COU bukatu eta Donostiako antzerki eskolan hasi nintzen. Bukatutakoan antzerki munduan sartuta egon naiz. Antzerki mundutik bizitzera zaila denez, beste lan batzuk ere egin izan ditut.

• Nola hasi zinen ETBn?

Kasualitate hutsa da, dena batera etorri zait. Casting horietako batera aurkeztu eta hartu egin ninduten. Lehenagotik ere ezagutzen ninduten.

• Ondo pasatzen da "Jaiak 97" programa egiten?

Bai, polita da. Gainera jendeari gustatzen zaio programa.

• Zer duzu gurago antzerkia, "Kili kolo" edo "Jaiak 97"?

Oso desberdinak dira. Kili Kolo leku itxi batean egiten da. Jaiak oso polita da ondo pasatzen dugu baina batzutan

itxurak ere egin behar dira parranda egin ostean. Asko inprobisatu egiten dugu. Herriak ere oso desberdinak dira. Bestalde antzerkia ere asko gustatzen zait.

• Eta jaietan asko ligatzen da?

Pixkat bai. Telebistan ateratzearena igartzen da, bestela ez da inor inguratzeko eta orain pixkat gehiago.

• Denbora librean zer egiten duzu?

Mendia gustatzen zait, ez naiz hondartzara zalea. Parranda egitea ere bai.

• Nongo jaiak gustatzen zaizkizu gehien?

Oraingoz San Ferminak. Nafarroako jaietan oso giro ona egoten da, Lesakan, Lizarran...

• Azken parranda noiz bota duzu?

Erenegun Donostiako aste nagusian.

• Ondo pasatzeko edan beharra dago?

Ez, baina edanda txispa gehiago daukazu, laguntzen du.

• Azkenengo bidaiara nora?

Iaz Marruekosera.

• Plater gustokoa?

Lentejak, nire amak ederrak gertatzen ditu.

• Eta ez hain gustokoa?

Porruak ez zaizkit gustatzen.

• Zerk ematen dizu amorrua?

Jendea amargatu samarra dagoela, gauzei inportantzia larregi ematen die.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55


OPEL

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala

■ Kotxe marka guztien konponketak

■ Zerbitzu guztiak



Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /
Fax: 79 62 65 •
ARETXABALETA

Gabeko giroa gustatu zait gehien, leku guztietan ibili gara, plazan, txosnetan, tabernetan... Ni Arrasatekoa naiz eta urtero etortzen naiz Andramaixetara. Atxabaltarrekin ligatu dut. Datorren urtean ere etortzeko asmoa daukat. Txarangak bota ditut faltan eta hori jarriko nuke datorren urtean.




Tere Egidazu



Juan Orobengoa


Jaiak ondo joan dira. Hirugarren egunean giro zoragarria egon da. Txaranga falta izan dela uste dut. Txarangak giro ona jartzen du eta. Bestalde, pelota partiduek maila handia izan dute. Gaez giro gehiago egon da egunez baino.



Nuria Balanzategi

Oso ondo joan dira jaiak. Arrasatekoa naiz eta egunero etorri naiz. Giro ona egon da, jende larregi barik. Kontzertuan egon nintzen. Mutil zozoak daude hemen, saiatu naiz ligatzen baina gutxi ligatu dut.

Zer moduz
Andramaixetan?
Zer gustatu zaizu
gehien, gutxien?
Zer aldatuko
zenuke?
Asko ligatu
duzu?



Andoni Guenetxea

Itxura baten joan dira jaiak. Beste urte batzutan baino hobeto nire ustez. Ilunkarako giroa gustatu zait gehien. Tabernetan ibili naiz eta kontzertua ere ikusi nuen. Tabernetan giro ona egon da. Formal ibili naiz eta ez didate ligatzen utzi.

Edarto joan dira jaiak. Juerga asko botata. Zezenak gustatu zaizkit gehien eta herri bazkaria. Arratsaldetan kalea animatzeko txarangak bota ditut faltan, giroa sortzen dute txarangek.



Iker Akizu



Iker Urkia

Herri bazkaria oso hondo egon da baina datorren urterako edaria eta ogia ere udaletxeak jarri beharko litzuke. Bazkal ostean taldetxo bat ondo egongo litzateke, giroa animatzeko. Ez didate ligatzen utzi.

**Aretxabaletako
industrialdea, S.A.**

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABALETA

**IMANOL
JANARI DENDA**

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



Andramaixak 1997



Mondeo DA

NAGUSITASUNA



Norbere kontrolatik ihes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbags-ak diseinatu ditugu. Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Ziurtasunean harantzago doa.



Estruktura integrala, deformazio guneekin eta aurrealde barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektronikoa banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun uhal ainguraketa eta pretensoreduna.

Udako oferta berezia

2.426.000 pta.tik aurrera

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel: 79 07 44 / 54
Faxa: 79 62 54



KIA KIA MOTORS

**Ekainetik aurrera, Deba Garaiko
zerbitzu ofiziala ARRASATEN duzu**

HONDA
AUTOMOBILAK

MENDIOLA

Araba etorbidea, ARRASATE
Tf. 79 20 30